

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.ehbildu.eus -
20003 Donostia

MENDEKOTASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONAK ETXEAN ZAINDUAK **IZATEKO IRISGARRITASUN PLAN BATI BURUZKO KONTROL MOZIOA**

Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udaltzaren azter dadin. Mozioa 2023ko otsailaren 13an Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Otsailaren 2an Ogasun Batzordeak egindako bilkuran, Gizarte-ekintzako delegatuak adineko pertsonak haien etxeetan mantentzea helburu duten programez hitz egin zigen. Esate baterako, delegatuak esan zuenez, 2023rako Udal Gobernuak etxean iraupen luzeko zaintzak diseinatzeko 159.559 euroko programa abiatuko du.

Eta, egia esan, datuek eta ikerketek berresten dute adineko pertsonak beren etxeetan ahalik eta denbora luzeena eman nahi dutela. Adineko pertsonen edo mendekotasuna dutenen %82 bere etxean edo senideren baten etxean bizi da, eta hala zahartu eta bizi nahi dute, eta etxean ezin bada, etxean bezala.

Horrek hainbat erronka sortzen dizkigu gizarte bezala, eguneroko bizitzako jardueretarako laguntza eta zerbitzuez gain. Adibidez, atarrietara eta egokitu gabeko komunitateetara sartzeko eta haietatik irteteko irisgarritasunaren arazoa dago, eta, ondorioz, adineko pertsona batzuek etxean bakartuta geratu edo egoitza batean sartu behar dute.

Horren adibidea dira, beren etxean gelditu nahi duten arren, atariko sarrerako eskailerengatik edo igogailua ez izateagatik egoitza batera joan behar duten donostiarrek, batez ere, aldapatsuak diren auzoetan.

Batzordean delegatua interpelatu dugunean, adierazi digu Eusko Jaurlaritzak badituela irisgarritasuna errazteko dirulaguntzak eta udal teknikariek informazio hori jartzen dutela herritarren eskura. Baina, praktikan, burokrazian galtzen diren familiak topatzen ditugu edo udal zerbitzuetatik zuzenean konpondu daitezkeen egoerak luzatu egiten dira (esate baterako, eskailera batzuetan porlanezko arrapala bat egiteko aukera udal zerbitzuen eskutik).

Hortaz, azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.ehbildu.eus -
20003 Donostia

KONTROL MOZIOA

- 1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari etxean zainduak izan nahi duten donostiarrek beren atarietan zein etxe inguruan dituzten irisgarritasun arazoak konpontzeko edo konpontzen laguntzeko neurriak har ditzala.
- 2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari herritarrei zuzendutako gida bat idatz dezala, irisgarritasun arazoak konpontzeko dauden baliabide, prozedura eta dirulaguntzekin.
3. Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari gizarte zerbitzuetako teknikariek hirigintza, ondare zein proiektu eta obren sailekin harreman zuzena izateko protokoloa idatz dezala (zalantzak argitzeko bide zuzenak zehaztuz, familiak aholkatzeko prozedurak malgutuz eta abar).

Donostian, 2023ko otsailaren 17an

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia